

Oinarriak

1. Parte-hartzaileak

Literatur lehiaketa hau getariarrei zuzenduta dago. Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake, betiere adinaren arabera dagokion mailan.

Lanak banaka egingo dira.

2. Modalitateak eta mailak

Bi modalitate izango dira maila bakoitzean: IPUINA eta BERTSOA/OLERKIA.

- | | |
|----------------------------|---------------------------------|
| 1. LHko 2. mailako haurrak | 6. 12-14 urte arteko gaztetxoak |
| 2. LHko 3. mailako haurrak | 7. 14-16 urte arteko gazteak |
| 3. LHko 4. mailako haurrak | 8. 16 urtetik aurrerakoak |
| 4. LHko 5. mailako haurrak | |
| 5. LHko 6. mailako haurrak | |

3. Gaia eta luzera

- Gaia librea izango da.
- Jatorriz euskaraz idatziak izatea.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izatea.
- Neurriari dagokionez, hona hemen mailaz maila eta modalitatez modalitate gutxieneko neurriak (A4 neurriaren arabera):

	Ipuina (Orrialdetan)	Olerki/Bertsoa (Lerroetan edo bertsoetan)
1. LHko 2. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
2. LHko 3. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
3. LHko 4. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
4. LHko 5. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
5. LHko 6. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
6. 12-14 arteko gaztetxoak	2-5 or.	12 lerro edo 2 bertso
7. 14-16 arteko gazteak	3-6 or.	20 lerro edo 3 bertso
8. 16 urtetik aurrerakoak	4-10 or.	35 lerro edo 5 bertso

4. Lanak nola aurkeztu

- Lanak ordenagailuz idatziak izatea (LH 2ko hurrek eskuz idatzita aurkez ditzakete), letra mota: "Times New Roman" 12, lerroartean tarte bikoitza utzita, eta DIN A-4 neurriko orrietan.
- Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Kartazalaren kanpoaldean, ipuin edo olerki/bertsoaren izenburua idatziko da.

5. Lanak non aurkeztu eta aurkezteko epea

Idazlanak Getariako Udaleko bulegoetan edo Udal Liburutegian aurkeztu behar dira.

IDAZLANAK AURKEZTEKO EPEA 2019KO MARTXOAREN 29A IZANGO DA, 13:00ETAN.

6. Epaimahaia

Kide hauek osatuko dute: Iturzaeta Herri Eskolako irakasle bat, Artzape herri-aldizkari ordezkarik bat, herriko idazle bat eta Getariako Udaleko Euskara Batzordeko burua. Idazkari-lanak udal-teknikariak egingo ditu.

7. Erabakia

Epaimahaiak erabakia jakitera eman ondoren, **SARIAK APIRILAREN 12AN BANATUKO DIRA, 18:30EAN.**

Epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez dutela irizten badio.

8. Sariak

Maila eta modalitate bakoitzeko sari bakarra emango da. Egile batek ezingo ditu bi sari jaso. Hona hemen sariak:

	Sariak	Ipuina	Olerki/Bertsoa
1.	LHko 2.-6. mailako haurrak	saria	saria
2.	12-14 urte arteko gaztetxoak	saria	saria
3.	14-16 urte arteko gazteak	saria	saria
4.	16 urtetik aurrerakoak	150 euro	150 euro

9. Lanen jabetza eta argitalpena

Saritutako lanak Getariako Udalaren esku geldituko dira, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.

10. Idazlanak itzultzea

Saririk jasotzen ez duten idazlanak Getariako udaletxean eskuratu ahal izango dira, sari banaketa egin eta 30 eguneko epean. Epe horretan jaso gabeko idazlanak Udalaren esku geldituko dira.

Literatur lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzea dakar.



www.getaria.eus



Getariako Udala

18.

GETARIAKO

LITERATURA LEHIAKETA

2019

LH2 - LH6

DBHko lehen zikloa (12-14 urte)

DBHko bigarren zikloa (14-16 urte)

16 urtetik gora

OLERKIA

IPUINA

BERTSOA